



LOYOLA'TAR IÑAKI
DEUNA'REN

BEDERATZIURUNA

20 EUNEN
(ZENTIMO)





M - 8589 / R - 36244

- JAUNGOIKO ZALE'N IDAZTIJAK -

ATV

18.875

LOYOLA'TAR İÑAKI DEUNA'REN

BEDERATZIURUNA

IBARGUTXI'TAR JON KURUTZ

JAUPARIJAK EGIÑA

(BIAR DAN BAIMENAZ)



- 1915 -

Grijelmo'ren Alargun eta Semien irafkolan
Arbolantxa 1—Bilbao'n.

U A R A

Euzkera irakurten oitu barik dagozanentzat, ipinten doguz emen, lenengo, izki edo *letra* atzalgarrijak; eta ufengo, itz edo *berba* gitxi ezaunak.

IZKI ATZALGARIJAK

<i>tx</i>	erderazko	<i>ch</i>	lakua da:	<i>txakur txiki</i> = chakut chiki
<i>r</i>	*	<i>rr</i>	*	: <i>erota bari</i> = errota barri
<i>l</i>	*	<i>ll</i>	*	: <i>oloa</i> = olloa
<i>t</i>	euzkerazko	<i>tl</i>	da	: <i>aitearen</i> = aitearen
<i>d</i>	*	<i>ld</i>	*	: <i>indar</i> = indyar
<i>x</i>	*	<i>axa</i>	*	: <i>axia</i> = aixia

ITZ GITXI-EZAUNAK

txadona = elezia, kistaŕak batu doyan-
zan tokia

larunbata = sapatua

igandia = domekia


autorkuntza = konpesiñua


oben = pekatu

eskaŕ = grazija

ludi (*lur* + *di*) = mundua

aurdiko = buru azpikoa, *almoadia*
alikatu = mantener
otoi = eñegua
garbai = damu
donoki (done + toki) = zerua
betseña = begiko aingerua
zijo = motivo
urgaztu = lagundu
ixeka = burla
oxina = pozo
naspiñatu = enredar, mezclar
andapara = efectuar urbi-dea
gentza = bake
autetsi = elejidu
afeta = atentziño
aintza = gloria.





LOYOLA'TAR DEUN IÑAKI'REN

BEDERATZIURUNA

— U A R A —

Bederatziurun au egiteko aldi egoki-jak dira; Garagañila'ko 23' gañenetik 31' gañenera, Iñaki deunaren jai-egunerako geftetako.

Garagañila'ko 30' gañenetik Dagon-ila'ko (Agosto) 7' gañenera, Marija ja-sokunde'ko bederatziurun auñetik, Pa-ris'en, Montmartre deritxon txadonan (eleizan), Iñakik eta bere saspi lagu-nak lenengoz egin eben Launbatza (kon-pañia) gomutatzeko.

Edozein larunbatez (sapatuz) uñengo bigañen igandian amañuteko, Manresa'n

zeguala Jaungoikuak egin eutsozan beretako eskaŕ ta agerkune (eŕebelaziňo) gomutan.

Iñaki deunaren bidez Jauna'gandik berarizko eskaŕa edo mesedia jaritxi nai dogun edonoz.

Bederatziurúneko egikizunik onenak dira:

1. Iñaki deunaren onbide edo biŕtutent bat antzeztuten alegindu, bere Jainko - maŕasuna, eruapena, otoi - zaletasuna...

2. Bederatziurúnean dirakuŕguna sakon ausnaŕtu, ondo pentzau edo go-galdu.

3. Gauoro, oyan etzukeran, geure gogua aztertu (esamiňau).

4. Otoi ta laztasun bidez bederatziurúnean baŕuan geŕtatu, bixitza gustiko autoŕkuntzea (konpesiňua) egiteko, ta gu-re Jauna arťzeko.

EGUNOROKO ASIKEREA

Gurutza santuaren...

Maite-damuzko otoya

Neure Jesu-Kristo Jauna, egizko Jaungoiko ta Gixona, neure Egile ta Eroslia, Zu'gan ziñestuten dot; Zeu'tzaz itxaroten dot; Zeu gauza gustijak baño mañiago zatut, damu naz bijotz-bijotzez zeu iraindu zatudalako, Zeu zaran on-utsa zaralako.

Erabagiten dot sendoro, auferantzian gaiztokeririk ez egiteko, ta Zeu iraindu-teko bide ta zorijetatik iges egiteko, autoitzeko, ta ezañiko deusten oben-nekia egiztuteko.

Neure bixitza au, egiñen eta neke gus tijk, neure oben-ordez eskintzen dautzudaz; eta Zeu on-onak eta eñukiofa zaralako, uste dot, eskatzen dautzudan lez, neure obenak azketsiko (parkatuko) daustazuzala Zeure Odol eder, Nekaldi ta Erijotza'ren bidez; zeure Ama, Soñtze gañbijaren eta Iñaki deuna, zeure

mañetzañ le zintsuaren irabaskunañen, eta zuzen-bidia ta erijotzaraño Zeuri jañaitzeko eskaña emongo daustazula. Olantxe.

Iñaki deunari egunoroko otoya

¡Iñaki Aña zoruntsuba, Jesusen Launbatza'ren Irasle edo Pundatzalía ta geure Zaindaria! Jaungoikuaren aintzarako, zeure goraltzerako ta gure onerako ixango baldin ba'da guk bederatziúrun onetan eskatzen dautzugun eskaña, Jauna'gandik jaritxi egiguzu; ezperen gure eskari au, gogo, itz eta egiñenak zuzendu egixuz, beti zeure azken-asmotzat ixan zendun Jaungoikua'ren aintzarik andijenera. Olantxe.

Lenengo eguneko gogartia (meditaziñua)

Ziñeskintzeatzazkua

Trento'ko Batzañak diñuan lez, kistar bixitzaren eta zuzendasunaren zustefaya ziñeskintzea da. Ziñeskintza gabe ezin Jaungoikua'gana biuŕtu gindekez; ezin atsegindu gengi Jaungoikua.

Ziñeskintza bidez ezagutzen dogu Jaungoikua. Ziñeskintza bidez dazauguz Jaungoikuak gure aldez egin dauzan egiñen gelgarrijak, miragafijak. Ziñeskintza bidez dazauguz Jaungoiko-Semiaren Gixakundia; Bere Nekaldi ta Eri-jotza. Ziñeskintza bidez dazaugu Jaungoikua'ren gutzazko matasuna. Ziñeskintzeak darakusku nundik gatozan... nora guazan...

Jaungoikua'gandik gatoz... Jaungoi-kua'ganantz guaz. Ludi (mundu) oneta-ko bidia iluna da, latza, ayaítsuba, are-rijoz inguratuba. Ziñeskintzea dogu árgitzat. Árgi oni jaíaitzen dautsona, ezta galduko. Árgi onek erakusten dauskun lez, eratu ta zuzendu biaír doguz ludi onetako gauza gustijak. Ogasunak, an-dikerija, atsegiñak, atsekabia, osasuna, gexua, erijotzia, gora-bera gustijak, ziñesteak erakusten dauskuntzat etsi edo euki biaír doguz. ¿Ziñeskintzea galtzeko zorijan jaíi zara, lagun gaiztuakaz bat-tuta edo irakuígai deungak irakuítita? ¿Ziñeskintzeak darakutzun lez bixi ete zara? ¿Ala gauza bat ziñestu ta beste bat egin oi dozu?

Zure bixitza zeure ziñeskintzearen erakua ixan bedi.

Jazopena

Iñaki deuna Irukoitz edo Trinidade deunaren zalia ixan zan. Egunoro egi-jon Irukoitz deuneko notin edo lagun bakotxari berarizko otoya. Jaungoikuak zaletasun au sariñu nai ixan eutson. Manresa'n eguala, Domingo deunaren eleiz-maletan Andra Marija'ri otoyak egiten, bere gogua bat-batian ze-rurantz igoten asi yakon; bere senetik urten zan, konorte barik gelditū zan. Jaungoikuak Irukoitz deunaren irudija bere gogo aurian ipiñi eutson. Atsegíñez zora-bijauta lez zeguan. Bere senera etorri zanian negar malko eztitsuak erijozan begijetatik. Ezin beste gauatzaz itzik egin eban Irukoitz deuna'tzaz baño. Ta gustijk, jakintsubenak be, ařitura, ikaratuta gelditzen ziran, esku-tapen eta ziñeskai sakon au azalduteko ta ařgitzeko erabiltzan zijo ta ařgi-bidiakaz. Ordutik bere bijotzean irařita gelditū yakozan ziñeskayak; eta esan oi

eban, Idazti Deunean (liburu santuetan) idatzita ez-palegoz be, edo (jazo elefetena) Idazti onek galduko ba'litzox be, berak bardin-bardin ziñestuko leukezala, ta irakatsi ta aldeztutiañen bere sagnetako odola ixuriteko geftu legokela.

¡Auxe bai ziñeskintza bixija!

LENENGO EGUNeko OTOÑA

¡Ziñeskayak agertu ta gure bijotzetan egiñen on gustijen eta zorijon betikoñaren zustefaya lez iraftzia nai dozun Jesus ona! Aña Iñaki deunaren onbide ta irabaskunak eskintzen dautzudaz, batez be bere ziñeste afgija ta bixija. Emaduzu ařen, Jauna, deun aulen bidez, Zeugan bixiro ta sutsu ziñesteko eskaŕa; bat be Zure legeko agintzak ondo ikasi ta zietz egiteko sendotasuna, Zeure aintzarako, Deuna'ren goraltzerako ta nire onerako ixango baldin ba'da. Olantxe.

Emen uste betez eskatu Deuna'ri, jaritxi nai dozun eskaŕa. Iru «Aña gure» Irukoiitz deuna'ri Iñaki zoruntasubak ixan eutson zaletasun-gomutan.

EGUNOROKO AZKEN OTOÑA

¡Ene Jaungoiko gustiz eñukioña ta ogasun gustijen emolia! Ni nazan eta do-dan gustija Zeugandik dot. Eskarfi oneka ixan nai dot; eta Añta Iñaki deunak bijotzean eta aguan erabilan eskintza onegaz bañiro biuñtu ta opaltzen dantzut. «Añtu, Jauna, ta zeuretu egizu nire lakemen osua; nire gomutapena, adiña ta nai gustija. Nik daukadan eta euki daikedan gustija, Zeuk emon zeustan; Zeuri, Jauna, beñemoten dautzut. Zeure mañasuna ta eskarfa bakañik emodazuz ta ase naz.»

BIGAREN EGUNA

*Maŕe-damuzko otoya ta egunero kua
7'garén oríjan lez.*

Gogartia

Itxarotasunatzazkua

Lo nasai egiteko auŕdikorik ederena, Jaungoikua'tzazko itxarotasuna da. Itxarotasun bidez Jaungoiko eŕukiofa-gandik ditxaroguz betiko zoruna, atsegin betikofa, ta atsegin eta zorun au jaristeko biaŕ doguzan eskaŕ eta laguntasuna. Jaungoikua geure Aŕa da, Aŕa ona, Aŕa maŕekoŕa, eŕukioŕa, altsuba, ogasun gustijen jabia. Beŕberak diňosku, ama bere seme bakaŕaz aiztuko ba'litz be, ez tala Bera gugaz aiztuko. Bere eskubetan garuaz. Betseňak lez maŕe gaituz. Ama-ren altsuan dagon seintxua, ezta ezetzaz arŕtegatzen; amagandik ditxaro biaŕ daun gustija.

Atsekabiak iota zagozan kistaŕ maŕe ori, ¿zer dala-ta arŕtegatzen zara? ¿ez eukijkak laŕitzen zauz? Egaz dabiltzan txo-

rijak alikatu, ta baratzeko lorak apainduten dauzan Aña Goikuak, ¿ez ete zau ba alikatu ta jantziko? ¿Gexuak eta ez-biaŕak gogait dagitxube? Gora, begi ofek. Ezbiaŕa ta gexua zeure onerako bialtzen dautzun Jaunak indar túko zau' atseginduko zau, zure goŕputz eritú ori beŕbitzuko dau. ¿Zeure arerijuak eta goŕputz-giŕňak obenera zirikatzen zabe-zala-ta, nekatzen zara? Paulo dontsugaz esakezu: Gustija al dot, neu sendotuten naunagaz. ¿Aidiak eta aizkidiak ugaz aiztu dira? Aña Goikua ezta zutzaz aiztuko. ¿Orain artekó gaiztokerijak bilduŕtzen zabe? Oso eŕukioŕa da gure Aña; aŕtarik samuŕena, gure iraňak azkatze-ko beti geŕtu dago.

Sendatu, ba, zeure itxopena; ta estutasunik laŕijenetan, Job deunaren itz edeŕ onek erabilkezuz: «Jauna, erijotz-zorijan jaŕiten ba'nozu be, nik Zu'tzaz itxarongo dot.»

Jazopena

Jaungoikuatzaz itxarotasun sendokua ixan zan Iñaki deuna. Ta zińez estutasun gustijetatik atara eban gure Jau-

nak, jazopen onetan dakuskegun lez. 1555'ko Iraña'ko 15'gafena zan. Eŕoma'ko ikastola edo kolejijuan lanian ebiltzan. Polanko Aba zan zuzentzaŕe. Txaŕto aurkitzen zan. Langilei alogera emoteko txurikorik be ez eukan. Iñok emon gura be ez eutson. Iñaki deuna'gana jo eban, eta esan eutson zeŕ jazoten yakon. Iñaki bere gelan saŕtu zan otoi egiteko. Otoi egin da, beste Aba biri deŕtuta, agertu eutsen zelako estutasunian aurkitzen ziran. Eta berak arazo au Jauna'ren eskubetan itxi ebala, ta igaŕlia etzan-aŕen, ezta igaŕle-semia be, baňa eskieŕtzat, ziurtzat ebala, Jaungoiko eŕukioŕak biaŕ eben gustija bialduko eutsela. Ta Polanko Aba'ri esan eutson, sei ilabedian ixan egijala ikastola-aŕduria, ta andik auŕera beragan ixango zala egikizun au. Ija gaba zan. Eta jgauza aŕigaŕija! egun atan bertan, ilunabaŕez, baster bi, alkaŕegandik aldendubetatik, uŕiňetik eta estutasun onen baŕi ezekije nak, biaŕ eben gustija bialdu eutsen. Seigaŕen ilabedian baŕiz, zoŕak oŕdaindu ta ikastola-lanak nasairo jaŕaŕtu ta amateko beste eldu yaken. Gustijk aŕitu-

ta gelditu ziran. Eta Olabe Abak ziñon ez-ebala berak ilak berbiztuten, itxubak aŕgituten eta efenak sendotutea ikusi biafik ziñesteko, goi-aŕgija baño goŕputz-begijakaz ekusana, gogo-begijakaz ikusteko. ¡Ain egija da Jaungoikuatzaz itxaron daunik, eztala iñoz lotsatu!

BIGAREN EGUNeko OTOÑA

¡Zeu'tzaz itxaroten dabenai ondasun gustijk emoten dautsozuzan Jesus samuŕa! Aŕta Iñaki deunaren irabaskun eta onbidiak eskintzen dautzudaz, batez bere gogo ta goŕputz-biar-ixanetan Zeutaz ixan eban itxarotasun sendua. Emodazu aŕen, Jauna, deunaren bidez, Zeure eskaŕta neure egiñen onakaz zorijon betikoŕa ta ludijan on ixango yatazan ogasunak loŕtuteko itxaropena, baŕa bederatziuŕun onetan eskatzen dautzudan eskaŕra Zeure aintzarako, Deuna goraltzeko ta nire onerako ixango baldin ba'da. Olantxe.

Emen eskatu... 11'garén oríjan lez

IRUGAREN EGUNA

Eguneroko asikeria 7'g. oríjan lez

Gogartia

Jaungoikua'ren Maitetasunatzazkua

Jaungoikua mañasuna da. Mañasunez egin dauz Jaunak ludi zabalian dakuskuzan gauza edefak. Amak seintxuari seaskatxua geftatzen dautson lez, ger-tau eutson Jaunak gixonari beronen biztokija. Mañasunez jatsi zan Jauna donoki (zeru)'tik luřera, gixona lufetik donokira jasoteko. Mañasunez gixon egin zan, gixona Jaungoiko egiteko. Mañasunez damotso gixonari daukan gustija; Jaungoikotasuna, gogo, goŕputz deunta bere odol edeňa jaki-edakitzat. Mañasuna da mañasun-ofdez Jaungoikuak gixonai eskatzen dauskuna. *Ene semia, ekatzu zeure bijotza, diñosku gixon bakotxari.*

Jaungoikua mañe-ixakezu, ta nai dozuna dagikezu, diño Austin deunak. Gixonaren bixitzea mañasuna da. Mañe

eztauna, ilda dago. Zeŕ maŕe dozun esa-dazu, ta zeŕ zaran dasaketzut. Gixonak gauzak aditzeko, uleŕtzeko, beregan-tzen dauz; bere gogo baŕuban saŕtzen dauz, baňa gauzak maŕatzeko beragan-dik uŕtetan da; maŕe daun gauzaz bat egiten da, maŕe daun gauza biuŕtzen da. Oso poli o di o Austin deunak: «Luŕa maŕe ba'dozu, luŕa zara; zerua maŕe ba'dozu, zerua; ta Jaungoikua maŕe ba'dozu ?zeŕ dasaketzut? Jaungoiko zara.» ?Luŕa maŕe dozu, ene kistaŕa? ?Ogasu-nak, atsegin zikiňak, andikerija maŕe do-zuz? ?Bai? Beraz luŕa zara, ?Jaungoikua maŕe dozu? Zorijon begitzu, Jaungoikua maŕe ba'dozu, Beragaz bat eginda za-goz. Jaungoikuak bere gustija damotzu; emon zeuk be zeure gustija, ta ludi one-tan asikezu betiko zeruan iraungo daun zoruna.

Jazopena

1541'ko Garagaŕila zan. Iñaki deuna Aba (aŕa) batzukaz eguna, euren artian Lainez deritxona. Iñaki'k bai-diňotso Lainez'i. ?Zeŕ egingo zeunke zuk, gure

Jaunak zori onetan jañiko ba'zinduz ointxe, ta esango ba'leutzu: Ara, beriala il nai ba'dozu, bixitz onetatik eruan eta atsegin betikoña emongo dautzut; bixi nai ba'dozu bañiz, eztioñtzut nik zutzaz zeñ ixango dan; zeu zeure burubaren jabe; onbidian irauten ba'dozu, nik sari ugarija emongo dautzut; bide onari itxiten ba'dautsozu bañiz, nik auñkitzen zaudan lez epañuko zaudaz: Onela Jaungoikuak itz egingo ba'leutzu, ta zuk usteko ba'zendu ludi onetan gelditū ezkero, berezizko zeñbait Jauna'ren aldez dagikezula ¿zeñ autetsiko (elejidu) zeunke? ¿zeñ erantzungo zeunskijo? Lainez'ek bai-dinotso: «Nik neuk beintzat, Aba (añta), añgi ta gañbi diñotzut, bernala Jaungoikugaz atsegintzia autetsiko neukela, ta zorun betikoña neugandu, ainbeste daus-tan arazuan neure buruba galtzeko bidian jañi baño len.» Ba nik, diñotso Iñakik, eneuke ori egingo; jakin ezkero ludi onetan geldituta Jaunaren aintzarako zeñbait nengikiala, zeregin ori egin añteko bixitza Jauna'ri eskatuko neuskijo, ta neure gogo gustija arazo ofi ezañiko neuskijo, neure buruba aintzat añ-

tu barik. Eta ziñez, ludiñar (mundutiar) ugezabak bere otseñari sarija eskiñiko ba'leuskijo, ta otseñak sarija aítu nai ez-paleu beste zerbait ugezabarentzako egin aítian zeleuskijo biañ-ba ugezabak sarija getuko? Ba gixon esker-txafekuak eta zikotzak onela egingo ba'lebe zegaitik uste ez, eleuskigula Jaungoikuak berre eskutik itxiko, bai, ofdez, gonburu ta ugari gure gogo ona sarituko leukela? Nik beintzat uste onetan diraut.

¡Auxe bai egizko Jaungoiko-matasuna ta zaletasuna!

Otoya

Zeutzazko matasuna zeure Lege'ko lenengo agintzan jañi zeuskun Jesus matetzale samuña! Iñaki deunaren onbide ta irabaskunak eskintzen dautzudaz, batez be Zeu'tzazko ixan eban matasun sutsua. Bijotz-bijotzez daskatzut, Jauna, eñe dagixula nire bijotza zeure matasun-txingafez, Zeu neure bijotz gustijaz, neure gogo osuagaz ta neure indar gustijakaz orain eta beti mate zagidazan-

tzat, baña be bederatziu fun onetan eska-
tzen dautzudan eskaña Zeure aintzara-
ko, Iñaki deunaren goraltzerako ta nire
onerako ixango baldin ba'da. Olantxe.

Bestia 11'garén oríjan lez.

LAUGAREN EGUNA

Asikeria 7'garén oríjan lez.

Gogartia

¡Jaungoikua dan maitegarija!

Gixonaren bijotza mañasun-egarí da. Gorputz-bixitzea gogua (arimea) dan lez, gogo-bixitzea mañasuna da. Gogo barik eleñeke gorputza bixi, ta gogua bez mañasun gabe. Baña z̄nun, eta zegaz asetu al daike gixonak mañasun-egarí au? Ez beintzat ludi onetako ogasun eta edefkijakaz. Edefki onen bila ibili zan Austin deuna. Ez eban iñun atsedenik aurkitu. Irazaki edo kriaturetan aurkitu ez ebana, Jaungoikua'gan aurkitu eban. «Zeuretzat egin ginduzuzan, Jau-na, ziñon, eta artega egon oi da gure bijotza Zeugan atsedendu artian,» Alperik zabiltz, ene kistaña, ludi onetan ogasun-bila; alperik edefki-bila; alperik zeure bijotzeko giñña-gosia atsegin zitalez ase-tuten; alperik andi-gurez; alperik...; ludi onetako ogasunak, atsegiñak, edefki-

jak... gustijak batera eukiña be, ezin asetu legije zure bijotz-egarria, erkiñak, aldakoñak eta amaikoñak dira-ta; zure bijotza bariz zabala, muga bagea ta betikoña. Ludi onetako ogasunak Jaungoikua'ren aberastasuna ta edeñtasuna agertzen dauskuben lora-kapelako iñontz ispitxua lez dira. ¿Edeñtasunak bijotza daruatzu? Jaso gora begi oñek eta oldoztu, pentsau, zein edeñfa ixango dan ain gauza edeñak egin dauzan Jauña. ¿Andi-gurez, aberaski-gurez zabiltz? Jaungoikua mañe egizu, ta zeuriak dira zeru-luñeko ogasun gustijak, euron jabea zeuria bai'da-ta. Jaungoikua mañe egizu, ta matiago ta andijagua ixango zara. ¿Atsegiñak zorabijetan zau? Jaungoikua mañe egizu, ta euri-jazak luñ lioña asetuten daun lez, atsegin-uyolez ase-tuko dau Jaunak zure bijotz lioñ egarituba. Ez ba bijotzik ezari ludi onetako gauzai.

Jazopena

Iñaki deuna, Loyola'n, oyan etzan. Gexo zan; gexo goñputzez; buñuka goñfian bere goguagaz. Jaungoikua'k ludiko zorakerijai itxi erazo, ta Beragana

detuten eutson. Ez eutson baña gogaiztuak, demoniñuak, bere eípetatik iges-egiten itxi gura. Jaungoikua'k Iñaki'ren gogua berraganatzeko gogalben (pentsamentu) ta aígiñasun goikuak bialtzen eutsozan. Gogaiztuak bere gifña zaíak igitu ta sututa iminden eutsozan. Su bijen eídijan zeguan Iñaki gaxua. Baña bera-beragan oldoztutenean (pentsetan) asten zanian, alde andija aurkitzen eban dei batetik bestera. Ludi onetako atsegíñak saíera onekuak zirudijen, baña azken samingofekuak; azalez ederák, baña guna, mamiña latza ta gaíatza. Irí-baíe gozua, zoragafija ezpanian, baña bijotz biaztuntsuba. Asko eskiñi, ta gitxi emon; atsegin-gaíra sutu bai, baña ez asetu. Bijotza ilun, aftega, arantzez jo-sita lez itxi oi eutsoen. Jaungoikozko gogalbenak (pentsamentubak), órdez, azalez latzak bai-zirudijen be, baña gogua aígi, bijotza pozóf ta bañuba gentzatsu itxi oi eutsoen. Bere buruba Jaungoikua'ri opaltzeko, obenatzaz gaíbai egiteko, bide onari jaíaitzeko asmuak erabiltzanian, atsegíñez asebeteta gelditzen zan bere bijotza.

Zaŕa zala, toki goyetara igon oi zan otoi egiteko, ta begijak zerurantz jasota esan oi eban: ¡Luŕa dan eŕkiňa ta ezaňa, begijak donokijan iminden doguzanian!

Otoya

¡Ondasun eta edeŕtasunaren itufija zaran Jaun aberatza! Iñaki deunaren onbide ta irabaskunak eskintzen dautzudaz, batez be zeruko ondasunatzazko ixan eban zaletasuna ta egaŕija. Emoda zu aŕen Jauna, Deunaren bidez, zeruko ondasun eta edeŕtasunen egaŕija; eztagodala ludi onetako ogasunai bijotza ezaŕi, ezperen sastzat etsi edo euki dagidazala, ondasun betikofak irabasteko; baŕa be bederatziuŕun onetan eskatzen dautzudan eskaŕa Zeure aintzarako, Deunaren goraltzerako ta nire onerako ixango baldin ba'da. Olantxe.

Amaya 11'garén oríjan lez.

BOSKAREN EGUNA

Asikerea 7'garén oríjan lez.

Gogartia

Lagun urkuaren maitasunatzazkua

Jesu-Kistok bere ikasle ezaugañitzat ipiñi eban alkaŕ-maŕasuna. *Alkaŕ-maŕasunian igaŕiko dabe gustijak, neure ikasliak zarela.* Lagun urkuaren maŕasuna, Jaungoikuaren maŕasunetik soŕtzen da. Maŕasun bijok alkaŕen antzekuak dira. Jaungoikua maŕe daunak, lagun-urkua be maŕeko dau, ta bere geidia edo lagun-urkua maŕe ez daunak, eztau Jaungoikua maŕe. *¿Zelan maŕe legi ikusten eztaun Jaungoikua, ikusten daun bere anaya maŕe eztaunak?*

Gixon bakotxak beragan darua Jaungoikua'ren irudija; Jaungoikua'ren antzera egiña da; Kisto'ren odolaz erosija; Kisto'ren goŕputz-atala. Kistaŕ bakotxaz esan geinke, beste Kisto bat dala. Ba semia maŕe daun amak, seme-irudija maŕeko dau, ta seme-irudija maŕe eztaunak

eztau semia mañe; ta baŕdin, Kisto mañe daunak, kistaŕa mañeko dau, ta kistaŕa mañe eztaunak, eztau Kisto mañe. Amak eztau bere semia mañe zuŕa, liraña, jakituna edo aberatsa dalako, semia dalako baño. Ganetiko onek sutsubago edo epelago mañatzeko zijuak bakaŕik ixan datekez. Eztogu guk be geidia mañe ixan biaŕ aberatsa, zuŕa, aiskidia edo gogakidia dalako, Jaungoiko-semia, geure anaya, Kistoren odolaz ikuŕtzatu edo señalatuba dalako baño. ¿Gaiztua edo zeure arerijua dalako eztozu lagun-uŕkua mañe gura? Ugaŕez eŕdotuta auŕkitzen dozun uŕea, ¿eztozu ugaŕa kendu ta gaŕbitu ta goŕdetan? Baŕdin egikezu lagun-uŕkuagaz be. Otoi egin Jaunari gaizto-kerija, arerijokerija, ugaŕa kendu dagon, baña mañe ixan zeuk, ugaŕez loŕtuta dagon kistaŕa. Mañe ixan, ez itzez bakaŕik, gogoz ta egitez baño. Ez oben edo pekatuan jausi-biderik egotzi, bide ona jaŕaitzen lagundu baño. Ez gosez, ogi biaŕian ipiñi, ezperen emon al dozunetik asko nai gitxi.

Jazopena

Iñaki deunak bere bixitza gustija eruan eban lagun-urkua ufgaztu edo lagunduten, bai gogo-biafr-ixanetan, bai gofputzekuetan. Ez zan berentzako etsairik. Arerijo andijenari eskafrík samuñenak egin oi eutsozan. Esan oi eban ixeka ta iñauteri edo buñlerik gofijenak pozik eruango ebazala, gogo (arima) bat gaizkatzeko. Paris'en eguala, uri onetan zalekeri gaiztoz galdu bixi zan gixon bat. Iñun ziran alegiñak egin ebazan Iñaki deunak, bide galdu atatik bide oneratzeko, baña... alpefrík. Bein, iluntzia zan. Bai joyan gixon gaizto a, Paris-bastefeko bidetik Jaungoikua iraindu ta bijotz-girñak asetuteko asmoz. Bide basterian oxiña zeguan urez beteta, otzez eŕdi leťuta. Oxin onetan sartu zan Iñaki deuna solbardetañoko uretan, eta gixona be bide gaiztotik joyala, diafrka ekin utson esaten: «Zuaz, zorigaizto ori, zuaz atsegin zitalez asetuten. ¿Eztozu Jaungoiko - asafíaren zigofa zure ganian ikusten? ¿Ez zau zu iruntzičeko

abua idigīta daukan geiztoki edo inper-nubak be bilduítzen? ¿Ez zau zure kal-tez jausiko dan neke oñazeak atzeratzen? Zuaz bai, ba ni ementxe nagoke neure buruba zure ordez nekatuten, Jaungoiko asafetubari zure aufezka geftauta dau-kan zigorā edo kastiguba atzeratu era-zoteko.» Diaŕ onekaz ixututa, afituta gelditu zan gixon a. Ez ekijan zer egin, Jaungoikuaren eskaŕak bijotzean ikutu eutson. Lotsatuta bafiro etxera biuŕtu zan. Ausi ebazan bere gogua (arimia) naspilatuta euken sariak, eta ez zan ge-yago ibilera gaiztuetara biuŕtu.

¡O! lagun uŕkuaren maŕasunak dara-gizan egiñen gelgafijak, miragafijak!

Otoya

¡Lagun - uŕkuaren maŕasuna zeure ikasle-ezaugaŕitzat itxi zeunskun Jesus maŕekofa! Iñaki deunaren onbide ta ira-bazkunak eskintzen dautzudaz, batez be gixon gustijak zeure maŕasunez kiskal-duta, donoki edo zeruko bidian ikusteko eban gaŕa, ta onetarako egin ebazan lanak. Emodazu aŕen, Jauna, Deuna'ren

bidez beraunek lez, neure geidiak, ais-kidiak nai arerijuak, mañatzeko eskafa, baña be bederatziuñun onetan eskatzen dautzudana Zeure aintzarako, Deuna'-ren goraltzerako ta nire onerako ixango baldin ba'da. Olantxe.

Amaya 11'garén oríjan lez.

SEIGAREN EGUNA

Asikerea 7'garén oríjan lez

Gogartia

Aiskidetasunatzazkua

Aiskidetasunak indar andija dauko gixonaren bixitzako gora-bera gustijetan. Goiz-belu, zelako aiskidiak alako gixona. Aiskidiak onak ba'dira, benetako kistaŕak, gaŕbijak, zinduak, Jaungoiko-zaliak, geu be onak ixango gara, gaŕbijak, zinduak, Jaungoiko-zaliak. Gure aiskidiak gaiztuak ba'dira, geu be gaiztotuko gara.

Gixonik geyenak lenengoz oben egiŕen dabe, lagun gaiztuakaz, zorigaizto-ko egunez, batu ziralako. Itz loya entzun eben. Egiñen gaiztua ikusi eben. Goguan saŕtu yaken... Gogaiztuak (demoniňuak) irudimena biztu eutsen. Giŕňak sutu, itxaŕtu yakezan... Eta... lenengoz odoi baltza jafi zan gogo atan. Ozkaŕbija baño gaŕbijagua zan gogua (ari-mia), kedaŕa baño baltzago gelditū zan;

Jaungoikuaren biztokija, gogaiztuaren (demoniñuaren) biztoki biuftu da. Lenengoz susmau dau bere bijotz iñunian, oben-usi ta aginkada gañatza. ¡Zorigaiztua gazte obenge edo iñuzentiaren bijotza oben-jausi-bidian ipindén dauna! ¡Zorigaiztua Jaungoikuaren seme zana, gogaiztuaren menpe gogor-pian ipini dauna! ¡Obeto litzakijon efota ařija samatik ezaři, ta andapara bota ba'lebe!

Gurasuak ařdura andija ixan biař da-be euren seme alabei lagun onakaz ibili erazoteko.

Aiskidetasuna ona ixango da, aiskidian maře dana ona ba'da. Aiskidian maře dana txařa ba'da, aiskidetasuna be txařa da. Ta aiskidian edeřtasuna, leunkerija ta beste onelako uskeri ta erokerijak maře ba'dira, utsa ta erua da aiskidetasuna be.

Txařtzat etsi edo eukikezu lagunak diňotzuna, amari esateko asařtzen ez-pazara. Txařtzat etsikezu berak darakutzuna, gurasuen aufian egiteko asařtzen ez-pa'zara.

¿Zelanguak dira zure lagunak? ¿Gaiztuak, itxeikizun eta asmo sakafekuak?

Ebagi, apuŕtu, iges-egin, zeure burua galdu baño len.

¿Kistaŕ onak, gaŕbijak, Jaungoiko-za-liak dira? Eskaŕak egikijozuz Jaunari, ogasunik ederéna emon dautzulako.

Jazopena

¡Zorijonekuak Iñaki deuna bezelako lagun onakaz batzen diranak! Paris'en ikasten iñaŕ ebala, Ikastola (eskola) bertan eguaean Fabŕo Saboya'taŕa ta Xabieŕ Napaŕ'taŕa. Bijok ziran gaztiak eta zolijak. Irurak ikaskide edo ikas-lagunak. Gela baten bixi ziran. Fabŕo'k irakasten eutsozan Iñaki'ri ludi onetako jakin-gayak, eta Iñaki'k oŕdez Fabŕo'ri zero goikuak. Lasterŕ zaletu zan Fabŕo Iñaki'ren bixi-eratzaz. Iñaki lez bixitze-ko asmua aŕtu eban. Iñaki'ri bere gogua agertu eutson. Iñaki'k poliō-poliō beragandu eban. Lenengo, egunero be-re gogua azteŕtuten irakatsi eutson. Ge-ro bixitza gustiko autoŕkuntzea eragin eutson. Astero autoŕtu ta Jaunaŕtzen ipiñi eban. Askenez zoŕtzi egunian go-gaŕte edo ejerzijuetan euki eban. Go-

gañtiak egin ondoren, itxas asafetik kai edo portu gentzatsura eldu zala zeritxon Fabro'ri. Ez eban alako gentza ta atsegiñik iñoz ixan. Gixon bañija zirudijan. Ludijari agur egin eutson, Jauña'ri jañaitzeko.

Xabier aldiz atan Ikastolako irakasle (maixu) zan. Iñaki ta bijak alkañegaz bakarik auñkitzen ziranian, Iñaki'k esan oiz eutson: «Xabier, gaztia zara, zuña, etxe onekua, ixen ospetsuba dozu; goyan zagoz, tokirik guren-gurenian, eta ondiño gorago igoteko bidian. Ludi-ja bafezka daukozu, besuak zabalik, zeu besaftzeko. Baña... ¿zeñ dautzu andikerijak, ixen ospetsubak, jakiturijak, gero betiko galtzen ba'zara?»

Xabier gogo andikua zan; bijotz sutsuba; bañenbenian joten eben Iñaki'ren uañ onek. Ibili ta ibili betikoñ ogasun eta atsegiñetzaz zaletu zan. Ikastola ta ogasunak itxi ebazan, txiro (pobre) Kisto'ri jañaitzeko.

¡Zorijonekuak Iñaki bezelako lagunakaz batzen diranak!

Otoya

¡Zeure aiskidetzat artu gozuzan Jesus otzana! Iñaki deunaren onbide ta irabaskunak eskintzen dautsudaz, batez be berre aiskidientzat ixan eban gogo ona ta euren bijotzak Zeu'ganatzeko egin ebazan lanak. Emodazu ahen, Jauna, Deuna'ren bidez, lagun gaiztuetatik iges egin, eta lagun onakaz beti ibiltzeko eskaña, baña be bederatziu fun onetan eskatzen dautzudana Zeure aintzarako, Deuna'ren goraltzerako ta nire onerako ixango baldin ba'da. Olantxe.

Amaya 11'garén oríjan lez.

SASPIGAREN EGUNA

Asikerea 7'garén oríjan lez

Gogartia

Otoyatzazkua

Biaŕ-biaŕezkua da otoya (oraziñua) go-gua galtzeko bidetik igesteko, baŕa Jaungoiko - bidia jafaitzeko. Biaŕ-biaŕezkua gaiztokerija'ganako goŕotua gu-re bijotzetan sortzeko, baŕa be gure bijotzak Jaungoiko-maŕasunez sututeko. Biaŕ-biaŕezkua geure arerijuak imind en dauskubezan eragozpenak eta ziltzaldi edo tentaziñuak garaitzeko, baŕa be Jaungoiko-legeko agintzak zietz egiteko.

Otoyak Jaungoikua'gaz batzaltzen gauz. Otoyan Jaungoikua'gaz itz dagigu. ¡Auxe bai gixonaren duintasuna! Edonun, edonoz Jaungoikuagaz itz egin daiket. Beti geŕtu dago, ain Jaun andija, nire itzok aditzeko. Otoya bijotz-ne-gaŕa da; bijotz-ulua; bijotz-diaŕa. Atse-

giñezko diafa; tamalezko ulua; damuzko negafa.

Otoi egiteko ezta itz-egiten jakin biafr. Egikixun au negafer obeto egin oi da itzez baño, bijotz-antziz edo zizpuruz obeto aboz baño, diño Austin deunak. Amaren bijotza seintxo-diafak samurtutten daun lez, samurtu oi dau Jesus'en Bijotza gure bijotz-diafak. Gogoz ta aboz, aspertu gabe otoi egin biafa dogu. Mendijk eta basuak, itxaso zabalak eta ixarfez jositako ozkarbijak, zugatzak, lorak, egaztijak, abereak, ixate gustijak Jaungoikua'tzaz itz dagizkube; Jaungoikua goratzeko, Jaungoikua guftu ta matatzeko, Jaungoikua'tzaz itxaroteko diaf egiten dauskube. Jesu-Kisto'ren bixitzea, bere Nekaldi ja batez be, igogalben ederak gure bijotzak oben-damuz bigundu, gure itxopena sendotu ta mañasuna sututeko!

Eskatu ta aŕtuko dozube, diñozku Jesus' ek. Eskat u bai, eskatu Jesus'i bere mañasunian iraun eragin dagitzula; atsegin betikoŕa emon dagitzula. Eskatu zeuretzat, zeure aidientzat, aiskidientzat, bat aŕerijuentzat be. Eskatu ludi onetako

ogasunak, on ixango ba'yatzuz, baña eskatu uste betiagaz; eskatu Jesusen bidez, Jesusen odolez zeure otoyak gofi-tuta, Jesus'ek nai dauna, ta jaritxiko dozu, zure pozofa osua ixan datentzat.

Jazopena

Iñaki deunak, Jaungoikua'gana biur-tu zanetik, beti ixan eban otoi egiteko afdura andija.

Al eban gustijan bere gogo bañuban saftu ta zietz aztertuten zan, autsik eta loirik ezafi ez egikijon. Egunoro goguan eroyan Jaungoiko-bidian auferantz yoyan ala ez. Jaupari edo sazerdote egin zanian, otoitzak egikeran, itz bakotxian gelditu-biañian auñkitzen zan, bijotz-atsegiñak eta begijetatik erijozan negañ-malko gozuak auñera jañaitzeko eragozten eutsoela. Negar-en-negaréz ikusmena galtzeako zorijan jañi zan, eta Doipuru edo Aña santuak otoitzak egin-biaña kendu eutson, ikusmena galdu ez egijan.

Arazo astunetan ez eban iñoz eraba-

girik aŕtzen, otoi bidez Jauna'ri bere aŕgutasuna eskatu gabe. Arazo gustijetan, bere buruba Jaungoikua'ren eskubetan itxi oi eban. Ez zan, ez alde batera ez bestera, ez bayetzera, ez ezetzera itxuli edo makurttuten. Gero gogo-gogotik eskatzen eutson Jauna'ri bere eskaŕ eta aŕgija, onduen egokijona autetsitiko. Azkenez baŕiro Jaungoikua'gana biuŕtzen zan, aŕtutako erabagija eskiñi ta egistuteko lagundasun-eske.

Gauzarik txikijenetatik Jaungoikua'gana joten eban. Landaratxuak, lorak, igali edo frutak, txoritxuak ikusijaz beste barik, bere gogua Jaungoikua'gana-tzen zan, eta bere bijotza beti atsegiñez zeguan Jaungoiko - maŕasunez sututa, baŕuko su onen indaŕak safitan arpegi-ja gorítzen eutsola.

Otoi txikijenak be afeta (atenziño) an-dijaz egin oi ebazan, Jaungoikua bere begijkaz ikusten ixan ba'leu lez.

Onela jaritxi eban ain deundasun (san-tidade) gelgafija.

Otoya

¡Zeure mañasunez otoi egiten irakatsi zeuskun Jesus maña! Añaki deunaren onbide ta irabaskunak eskintzen dautzudaz, batez be bere otoyatzazko zaletasuna ta gixon gustijei otoi egiten irakasteko ixan eban gaña. Emodazu ařen, Jauna, otoi-bidez Zeugaz batuta beti bixiteko eskaña, donokijan (zeruan) zoruntsubak lez, lufian niraun ařtian Zeure naya egin daidantzat, baña be be deratziuřun onetan eskatzen dautzudana Zeure aintzarako, Deuna'ren goraltzerako ta nire onerako ixango baldin ba'da. Olantxe.

Amaya 11'garén oríjan lez.

ZORTZIGAREN EGUNA

*Asikerea 7'garén oríjan lez
Gogartia*

Jaungoikua'ren aintzarik (glorijarik) andi-jenerako

Azken-asmua edo intentziñua gure egikizun gustijen zusteráya lez da. Zugatzak zusterá sendua ba'dauko abar, ofí ta igali edo frutu gurijak eta ugari ekafi oi dauz. Zusterá makala edo ustela daukan zugatzak bafiz, abar igeña, ofí oriya ta igali ustelak. Bařdin jazoten yaku guri be, geure lanetan eta egikixun gustijetan: azken-asmua ona ba'da, gure egikixunak onak eta sarigafijak ixango dira; azken-asmua txařa ba'da, egikixuna be txařa ixango da. Asmo onak ezin gaiztokerija ondu daike, baňa asmo txařak lanik zuzenena gaiztotu ta usteltzen dau. Ta sařijago ta gogotijago edo sutsubago asmo onez lana egin-da, obiagua ta saritsubagua ixango da. Berau-

xez diñosku Paul deunak, bai jaten dozubela, bai edaten dozubela, bai beste edozeñ egiten dozubela, gustija Jaungoikua'ren aintzarako egikezube. Bide zuzena ta labuña da asmo ona, geure lanak Jaungoikozkuak eta saritsubak ixateko. Asmo onaren bidez biañ-biañezkuak diran egipenak, jatia, edatia, lo egitia, deundu edo santutu gengiz, ta beste lanetan sari bi, aloger bi irabazi geinkez: sari bata lanari dagokijona, lanak dakañena, ta bestia Jaungoikuak zoñ dauskuna, ba Jaungoikua'ren aldez, Bere aintzarako lan egin ezkerro, Jaungoiko efukioña gure lanen zoñdun gelditzen da. Goxian ogetik jagikeran, egun gustiko lanak Jaungoikua'ri opaldu biañ dautsaguz. Gero bañiz lan bakotxa asi-keran, gogua zerurantz jaso ta esan Jaunari: Jauna, lan au Zeure aintzarik andijenerako.

|Zeinbat irabazkunegaz aurkituko gintzatekez erijotz-aldijan, asmo au geure lan gustijetan erabiliko ba'gendu!

Jazopena

Iñaki deunaren bixitzako azken ofijan itz onek baño egokijagorik ezin jaíti legiz: *Jaungoikua'ren aintzarik andijenerako*. Jaungoikua'gana biurtu zanetik, bere itzak, bere ikaskixunak, bere bidezkundiak, bere lanak, bere atsekabiak, bere gogo gustija asmo eder oni ezarri eutsan. Jaungoikua'ren aintzarik andijena ixan zan bere ikurta edo señalia. Jesus'en Launbatza edo konpafiaiko egin ebazan arauetan edo agintzatan, saíti gogoratzen dautse bere semiei, afdura andija ixan dagijela euren arazo gusti-jak, astunak nai ariñak, Jaungoikua'ri eskintzeko ta Bere aintzarik andijenerako egiteko.

Bein gexo zan. Gaizki zeguan. Osagliak agindu eutson, ez bere buruba nekatzeke gogalben (pentsamentu) ilun eta larijakaz. Bere aŕtian gogoratzen asi zan, zein ixan ete zefekian berari gogua ilundu ta bijotza aŕtegatzerañoko atsekabia. Gauza asko goguan erabili ebazan. Gauza bat bakaŕa, berak bijotz-

-efayetan josīta eroyana, otu yakon go-gua iñundi legikionik, ta zan, Jesus'en Launbatza edo kompaña banandu edo apuítuko ba'litzan. Gogoratzen asi zan, atsekabe onek iraungo eutson aldiha (denporia), ta uste eban, Jesus'en Launbatza, bere efü barik, ondatu ba'litz, of-du laurengo otoyaz bañiro bere bijotza gentzatu ta baketuko zala, ta au Jesu-sen Launbatza, gatza uretan urtuten dan lez, betiko urtu ta ondatu ba'litz be.

¡One!a bere naya Jaungoikua'ren na-yaz bat eginda eukan Iñaki deunak!

Otoya

¡Gauza gustijen jabe bakaña zaran Jesus altsuba! Iñaki deunaren onbide ta irabaskunak eskintzen dautsudaz, batez be bere arazo gustijk Zeure aintzarik andijenerako egiteko ixan eban asmo zindo ta sutsuba. Zeu zara, Jesus, neure Jauna, Zeu nire mañia, Zeu nire atsegi-ña, Zeuri bakañik dagokitzu aintza (gloriya) ta goralbena. Emodazu ahen, Jau-na, Iñaki deuna'ren bidez nire lan eta egikizun gustijk Zeure aintzarik andi-

jenerako egiteko gogo ona, batā be beratziufun onetan eskatzen dautsudan eskaŕa (grazija) Zeure aintzarako ta nire onerako ixango baldin ba'da. Olantxe.

Amaya 11'garén oríjan lez.

BEDERATZIGAREN EGUNA

Asikeria 7'garén oríjan lez.

Gogartia

Marija'ganako erazkun

edo zaletasuna'tzazkua.

Marija'ren bidez etofi yakun Jesus.
Marija'ren bidez juan biaŕ gara Jesus,
gana.

Jaungoikua'k beste deun (santu) gustijak baño maŕiago dau Marija, ta Marija'ri beste deun gustijai baño eskaŕ (grazija) geyago egin dautso, bai berentzat, bai gixon bakotxarentzat.

Aŕa Jaungoikuak bere Semia emon eutson Marijari, ta bere Semiagaz bere naya (borondatia), bere eskaŕ ta ondasun gustijak.

Jaungoikuak bere ogasun gustijen zaindari ta emoŕetzat ipiñi dau Marija; Marija'ren eskubetatik igaroten dira zeruko ogasun eta emokayak (doyak); beronek banandu ta ixuriten dauz beronek nai daunagana, nai daunian eta nai daun beste.

Marija da zeruko atia; ate onetatik saŕtzen eztana, ezta donoki edo zeruban saŕtuko,

Marija maŕe daunik ezta gaižtetsi edo kondenauko.

Marija maŕe eztaunik, Marija'ri zale-tasun pizkarik eztautsonik, ezta gaizka-tu edo salbauko.

Marija gure Ama da. Marija Amatzat eztaunak, eztau Jaungoikua Aŕetzat.

Jaungoikua'ren Ama neure Ama da. ¿Nor atseginduko ezta gogalben (pentsa-mentu) pozkaŕi onegaz? ¿Nok maŕe ixan-go eztau Ama ain edera, ain kutuna, ain biguna, ain eŕukioŕa? ¿Zeren bildur ixan-gindekez, Ama altsubak eta maŕekoŕak bere bijotzean ba'garuaz?

Ama lez maŕekezu. Egunero esakijo-zu Aguŕtza (eŕosarijua); ospatu bere ya-yak, autoŕtu ta Jaunaŕtzeaz; aguŕtu bere irudija goxian ogetik jagikeran; eta es-katu bere onespena (bendeziňua) oyan etzukeran, bere Soŕkunde gaŕbijari iru «Aguŕ Marija» esanda; aguŕtu ofduak joten daunian be, ta eskiňi saŕi ta gogoz zeure bijotza.

Jazopena

Iñaki deunak, beste deun gustijak lez, Marija'ren bidez jo eban Jaungoikua' gana, ta Marijaren bidez iraun eban azkeneraño bere erabagi onetan.

Gau baten, Loyolan gexorik zeguala, buŕuka gogoŕa erabińan bere buruagaz, Jaungoikua'ren deyari jaŕaitzeko gaŕez gogua sututa eukan, baňa etsayak era-gozpen gogoŕak eta bilduŕgaŕijak betauŕian ipinŃen eutsozan.

Oetik jagi zan, eta Marija'ren irudi aufian belauniko jaŕita, gogo-gogotik bere bijotza opaldu eutson: eskatu eutson emon egijola aŕgitarasuna ta indaŕa Jaungoikua'ren naya obeto ezagutu ta era-gozpen gustijen ganetik egiteko; Ama-ren bidez eskińi yakon Semiari bere otseintzat eta gudaritzat. Otoi onetan auzpeztuta iñaf ebala, bat-batian ots edo zarata ixugaŕija somau zan etxe gustijan, etxiak ikara eginda ofmak luŕera ba'letoz lez. Eta zan Marijak arerijuari iges eragin eutsola, ta arerijuak bere

asafia adirazoteko, etxetik uŕtekeran zarata bilduŕgaŕijok egin ebazan.

Andik laster Iñaki deuna Monseŕat'era yoyala, bidian bafiro Ama goikuari berre semetzat eskiňi yakon, eta bixitza gustijan gogo ta gofputzeko gaŕbitasuna jagoteko erabagija aŕtu eban.

Monseŕat'era eldu zanian, soñeko jantzi edeŕak erantzi ta eskekuari emon eutsozan. Oyal-soŕki zaŕagaz, jantzi oŕdez, goŕputza estaldu eban, eta sokia geŕikotzat ebala, lentxuago zaldun aŕua ta apaintzalia zana, Marijaren irudi aurian gau gustijan itxafík egon zan, munduko uskerijak betiko itxi, ta Marija, Ama edeŕa, bere maŕetzat aŕtzen ebala adirazoteko. Ondo oŕdaindu ta sariŕu eutson bijotz samuŕdun Amak zaletasun zintzo au. Ba Manŕesako aitz-zuluau, Berak irakatsi ta idatzi erazo eutson goŕarte edo ejerzijuetako idaztiňo edo liburutxua, izkitan (letratan) daukan baño arimatan geyago Jaungoikua'ganatu daun idaztiňo edeŕa.

¡Olantxe oŕdaintzen dau Marijak, beraganako zaletasuna!


Otoya


|Zeure Ama geure Amatzat emon zeunskun Jesus mañekoña! Iñaki deunaren onbide ta irabaskunak eskintzen dautsudaz, batez be Zeure Ama Nesku-tza'ganako ixan eban zaletasuna. Emo-dazu ařen Jauna, Deunaren bidez Zeure Amaganako mañasuna; ludi (mundu) onetan bere seme zindua ta mañekoña ixateko eskaña, zeruan aldioro, Beragaz neste, Zeu mañe-ixan eta aintzatu zagi-dazantzat; baña be bederatziuñun onetan eskatzen dautsudana Zeure aintzarako, Deunaren goraltzerako ta nire onerako ixango baldin ba'da. Olantxe.

Amaya 11'garén oríjan lez.

A. M. D. G.







JAUNGOIKO-ZALEN

■ IDAZTIJAK ■

Zorundun Beñiotxoa'ŕ Balendiň'en bederatziúfuna, ta bixitz-edesti labuŕa. Banaka 10 centimo. Beñogetamaŕ, amaŕ eŕial.

Ama Maria-Sorkundiaren bederatziúfena. Banaka 15 centimo. Beñogetamaŕ, ogeta bi eŕial.

San Antonio Abata'ren bederatziúfena. Banaka 15 centimo. Beñogetamaŕ, ogeta bi eŕial.

Edesti Jaungoya (Historia Sagrada). Banaka 40 centimo. Beñogetamaŕ, irurogei eŕial (bazkidie erlen bakotxa).

Loyola'taŕ Iñaki deunaren bederatziúfuna. Banaka 20 centimo. Beñogetamaŕ, ogei eŕial.

Saltzen dira idazti-denda edo librerija gustijetan; eta Zornotza'n (Amorebieta) Jaungoiko Zalen Artezkarija'renian.

